

Helburua

Dokumentu honek inbertsio-produktu honi buruz jakin behar duzun funtsezko informazioa ematen dizu. Ez da material komertziala. Legez eskatzen den informazioa da, zuri produktu honen izaera, arriskuak, kostuak eta balizko onurak eta galerak ulertzen eta beste produktu batzuekin konparatzen laguntzeko.

Produktua

Izena:	TELEFÓNICA 11/2026 gordailua
Identifikatzailea:	NOE 28328
Fabrikatzailea:	Banco de Sabadell, S.A. IFZ A08000143
Harremanetarako datuak:	https://www.bancosabadell.com/cs/Satellite/SabAtl/Documentacion-PRIIPS/2000025609204/es/
Telefonoa:	902 323 000; Espainia kanpotik deitzen baduzu: +34 935 916 360
Agintaritza eskuduna:	Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala
Funtsezko Datuen Dokumentuaren produkzio-data:	2019ko azaroaren 14a

Erraza ez den eta ulertzen zaila izan daitekeen produktu bat eskuratzeko zorian zaude:

Zer da produktu hau?

Mota

Egituratutako Gordailua

Helburuak

Produktuaren helburua zera da, erreferentziatzko indize baten edo batzuen portaerari lotuta dagoen finantza-tresna batean inbertsio bat egitea errentagarritasun bat lortzeko. Ondoren adierazten diren zenbatekoak zuk inbertitzen duzun Zenbateko Nominal bakoitza adierazten dute. Kalkulu-agentek dagozkion zenbatekoak zehaztuko ditu.

Erreferentziatzko indizeak

Etekina Telefónica SArI (Bloomberg-TEF SM Equity) dago lotuta.

Nola zehazten da etekina?

- Behaketa-egun bakoitzean, indizearen itxiera-prezioa bere Hasierako mailaren berdina edo handiagoa bada, dagokion Likidazio-datan Zenbateko Nominalaren gaineko % 0,3ko kupoi bat jasoko duzu. Txikiagoa bada, zuk Zenbateko Nominalaren gaineko % 0,05eko kupoi bat jasoko duzu.
- Muga-egunean, Zenbateko Nominala berreskuratuko duzu.

Funtsezko datak eta datuak

- Kalkulu-agentea: Banco de Sabadell, S.A.
- Zenbateko nominala: 1.000 EUR
- Jaulkipen-data: 2019ko azaroaren 14a.
- Muga-eguneko data: 2026ko azaroaren 16a.
- Hasierako maila: Erreferentziatzko indizearen itxiera-prezioa hasierako behaketa-datan
- Bukaerako maila: Erreferentziatzko indizearen itxiera-prezioa bukaerako behaketa-datan
- Behaketa-datak:
 - Hasierako behaketa-data: 2019ko azaroaren 14a.
 - Kupoiaren Behaketa Datak: 5 egun baliadun Likidazio Data bakoitzaren eta Azken Behaketa Dataren aurretik
 - Bukaerako behaketa-data: 2026ko azaroaren 9a.
- Likidazio-datak: azaroaren 14 guztiak, Muga-egunera arte. Asteburua edo jaieguna bada, Modified Following konbentzioa erabiliko da.


Zein inbertitzaile minoristari dagoen zuzenduta

Batez ere honako hauei dago zuzenduta: edozein bezero, produktu horretan edo antzeko produktutan alde aurretik duen ezagutza- edo esperientzia-maila ertaina izanik, galerak bere gain hartzeko ahalmenik gabe, eta bere arrisku-profila <<arriskurik txikiena>> izanik. Era berean, xede-bezeroen inbertsio-helburuak produktuaren muga-egunarekin koherentea den eta eragiketaren xedetzat kapitalari eustea duen inbertsio-horizonte bati egongo liriteke lotuta, zerbitzua soilik egikaritzekoa (txikizkako bezeroak salbu), komenigarritasun-testa duen soilik egikaritzekoa, aholkularitza independentekoa, aholkularitza ez-independentekoa eta diru-zorroen kudeaketa diskrezionalakoa izanik.

Zer arrisku ditut eta zer lortuko nuke horien truke?

Arrisku-adierazlea

Arriskurik txikiena



Arriskurik handiena



Arrisku-adierazleak aurreikusten du 2026ko azaroaren 16ra arte produktuari eutsiko diozula. Zuk ezingo duzu irteera aurreraturik egin.

Arrisku-adierazle laburtua produktu honek beste batzuekin alderatuta duen arrisku-mailaren gida bat da. Merkatuen bilakaerarengatik edo guk ezin dizugulako ordaindu produktuak dirua galtzeko dituen probabilitateak azaltzen ditu. Produktu hau 1. arrisku-mailan sailkatu dugu 7ko eskala batean, non 1 <<arriskurik txikiena>> den. Horretarako bi elementu izaten dira kontuan: 1) merkatu-arriskua (erreferentziatzko indizearen hegazkortasun-arriskua eta interes-tasaren arriskua): etorkizuneko portaeratik eratorritako balizko galerak oso arrisku txiki gisa sailkatzea; eta 2) kreditu-arriskua eta merkatuaren kointuntura txar batek Bankuak zuri ordaintzeko duen ahalmena erasanda geratzeko probabilitatea oso txikia izatea. Suntsiarazpen-agintariek, kreditu-erakundeak eta inbertsio-zerbitzuen enpresak berregituratu eta suntsiarazteari buruzko Europako 2014/59/EB

zuzentara aplikatuz, birkapitalizatzeari lotutako finantza-tresnak amortizatzen eta/edo beste balore batzuetan bihurtzeko edo bestela jaulkitzailearen aktiboak eta/edo negozio-unitateak eskualdatzeko erabakia hartzeko arriskua. Zure kapitalaren % 100 gutxienez berreskuratzeko eskubidea duzu. Zenbateko horren gainetik dagoen edozein kopuru, eta edozein etekin osagarri, merkatuaren etorkizunaren bilakaeraren arabera daude, eta ezin dira aurrez jakin. Hala eta guztiz ere, kontsumitzailea babesteko erregimen bat izan dezakezu (ikus «Zer gertatzen da ezin badizugu ordaindu») atala. Aurreko adierazleak babes hori ez du kontuan hartzen.

Errentagarritasun-egoerak

Merkatuak etorkizunean izango duen bilakaeraren aurreikuspen zehatza ezin da egin. Barne hartzen diren egoerak, azken etekinak oinarritzat hartuz izan daitezkeen emaitza posibleetako batzuen adierazpen soilak dira. Baliteke benetako etekinak txikiagoak izatea.

Inbertsioa (10.000 EUR)

Egoerak		urte 1	4 urte	7 urte Gomendatutako mantentzealdia
Tentsio-egoera	Kostuak kendu ondoren jaso dezakezuna	10.054 EUR	9.984 EUR	10.035 EUR
	Batez besteko etekina urtero	% 0,54	% -0,04	% 0,05
Egoera txarra	Kostuak kendu ondoren jaso dezakezuna	10.065 EUR	9.992 EUR	10.035 EUR
	Batez besteko etekina urtero	% 0,65	% -0,02	% 0,05
Tarteko egoera	Kostuak kendu ondoren jaso dezakezuna	10.086 EUR	10.005 EUR	10.035 EUR
	Batez besteko etekina urtero	% 0,86	% 0,01	% 0,05
Aldeko egoera	Kostuak kendu ondoren jaso dezakezuna	10.140 EUR	10.083 EUR	10.135 EUR
	Batez besteko etekina urtero	% 1,40	% 0,21	% 0,19

Lehendik definitutako behaketa-datetan lotutako balizko fluxuak (kupoiak eta/edo autoezerezteak) gomendatutako inbertsioaldia amaitu arte arrisku-tasa librean berriz inbertitzea beren gain hartzen dute aurreko egoerek.

Taula honek adierazten du zuk datozen 7 urteetan jaso dezakezun dirua, egoera bakoitzaren arabera, 10.000 euroko inbertsioa egiten duzula suposatuz. Aurkezten diren egoerek zure inbertsioak izan dezakeen errentagarritasuna azaltzen dute. Beste produktu batzuen egoerekin konpara ditzakezu. Aurkeztutako egoerarako etorkizuneko errentagarritasuna kalkulatu da, inbertsio horrek iraganean izan duen aldaketaren datuetan oinarrituta, eta beraz, egoera horiek ez dira adierazle zehatzak. Jasoko duzuna aldatu egingo da merkatuaren bilakaeraren eta inbertsioa edo produktua mantentzen duzun denboraren arabera. Tentsio-egoerak merkatuen muturreko zirkunstantziatan jaso dezakezuna adierazten du, eta ez du kontuan izaten guk zuri ordaindu ezin dizugun egoera bat. Produktu hau ezin da efektibo bihurtu, eta horrek esan nahi du muga-eguna baino lehenago salduz gero jasoko zenukeen zenbatekoa ezin dela zehaztu. Ezingo duzu lehenago saldu, eta hala eginez gero kostu handia ordaindu beharko duzu edo galera nabarmena izango duzu.

Aurkezten diren kopuruek produktuaren kostu guztiak biltzen dituzte, eta aholkulariaren edo banatzailearen kostuak era biltzen dituzte. Kopuruek ez dute kontuan hartzen egoera fiskal pertsonala, eta egoera horrek jasoko duzun kopuruan eragina izan dezake.

Zer gertatzen da Banco Sabadell, S.A.k ezin badu ordaindu?

Banco Sabadellek ezin badu ordaindu, Kreditu Erakundearen Gordailuen Bermerako Funtsak (www.fgd.es), gordailatu duena itzuliko diotela bermatzen dio 100.000 euroko mugaraino (edo bere kontrabaliak eurotan, beste dibisa batean izendatutako gordailuen kasuan) gordailugile bakoitzeko. Kontuan izan ezazu Banco Sabadellek, kreditu-erakunde gisa, Banco Sabadell, SabadellUrquijo eta Activobank markak barnean hartzen dituela, eta zuk kreditu-erakunde berean diru-gordailu bat baino gehiago edukiz gero zenbatekoak batu egingo direla eta erakunde bakoitzeko 100.000 euroko mugari lotuta geratuko direla, eta beste pertsona batekin edo batzuekin batera konturen bat izanez gero, 100.000 euroko muga gordailugile bakoitzari aplikatuko zaio bananduta. Aitzitik, sozietate, elkarte edo antzeko erakunde bateko bazkide edo kide izateagatik bi pertsonak edo gehiagok eskubideak badituzte kontu baten gaineko gordailutan, gordailu horiek erantsi egingo dira eta titular bakar batek egin izan balitu bezala hartuko dira. Berme hori soilik kontuko saldoei eta dirutan egindako gordailuei aplikatzen zaie, sinpleak nahiz egituratuak izan, eta beraz beste produktu batzuk ez daude estalita eta bakoitza bere itzulketa-erregimenari lotuta egongo da.

Zein dira kostuak?

Etekinaren murrizketak (RIY) lor dezakezun inbertsioaren etekinean ordaintzen dituzun guztizko kostuek izango duten inpaktua adierazten du. Guztizko kostuek kostu bakarrak, arruntak eta osagarriak hartzen ditu kontuan.

Hemen adierazitako zenbatekoak hiru mantentze-eperi dagozkien produktuaren kostu metagarriak dira. Irteera aurreratuetatik jar daitezkeen penalizazioak barnean hartzen dituzte. Zifrek aurreikusten dute zuk 10.000 EUR inbertitutako dituzula. Zifrak aurreikuspenak dira, eta beraz etorkizunean aldatu egin daitezke.

Kostuak denboran zehar

Inbertsioa (10.000 EUR)

Egoerak	Urte 1 igaro ondoren irtenda	4 urte igaro ondoren irtenda	Irteerarekin (gomendatutako mantentzealdiaren amaieran)
Kostuak guztira	705,40 EUR	682,10 EUR	679,87 EUR
Etekinaren murrizketaren gaineko inpaktua urteko	% 7,05	% 1,71	% 0,97

Kostuen osaera

Ondorengo taulak honako hau adierazten du:

- Kostu mota desberdinek gomendatutako mantentzealdiaren amaieran inbertsioaren etekinean urtero izan dezaketen inpaktua;
- Kostu-kategoria bakoitzaren esanahia.

Taula honek adierazten du etekinaren gaineko inpaktua urteko

Kostu bakarrak	Sarrera-kostuak	% 0,97	Zure inbertsioa egiterakoan ordaintzen dituzun kostuen inpaktua. Kostuen inpaktua prezioaren barnean hartuta dago dagoeneko.. Kopuru horrek zure produktuaren banaketa-kostuak hartzen ditu barnean.
	Irteera-kostuak	EA	Zure inbertsioaren irteera-kostuen inpaktua muga-egunera iristen denean.
Kostu arruntak	Diru-zorroaren eragiketa-kostuak	EA	Produktuaren azpiko inbertsioen erosketak eta salmentak guretzat izango dituzten kostuen inpaktua.
	Beste kostu arrunt batzuk	EA	Zure inbertsioen kudeaketaren urteko kostuen eta II. atalean aurkezten diren kostuen inpaktua.
Kostu osagarriak	Etekin-komisioak	EA	Ez da aplikatzen
	Kontuko partaidetzak	EA	Ez da aplikatzen

Zenbat denboraz mantendu behar dut inbertsioa, eta dirua modu aurreratuan erretiratu dezaket?

Gomendatutako mantentzealdia: 7 urte.

Gomendatutako mantentzealdia produktuaren muga-egunarekin bat dator. Mesedez kontuan izan ez dagoela baimenduta produktua muga-eguna iritsi baino lehen bertan behera uztea, ez duelako likidezirik.

Nola erreklamatu dezaket?

Produktu honi edo jaso duzun zerbitzuari buruzko kexa edo erreklamazio bat jarri nahi baduzu, gure Bezeroaren Arretarako Zerbitzura jo ahal izango duzu, <https://www.bancsabadell.com> webgunean eskura dagoen harremanetarako Inprimakiaren bitartez eta/edo helbide honetara posta-gutun bat bidaliz: Servicio de Atención al cliente – Centro Banco Sabadell, Polígono Can Sant Joan. Calle Sena, 12, 08174 Sant Cugat del Vallès, edo posta elektronikoki bidez SAC@bancsabadell.com helbidera, betiere bitarteko horren erabilera sinadura elektronikoki buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legean xedatutakora egokitzen bada. Bezeroaren Arretarako Zerbitzuan erreklamatu ondoren Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalean erreklamatzeko aukera dago.

Beste datu interesgarri batzuk

Dokumentu honen osagarri gisa, produktu honen informazioa biltzen duen kontratu-aurreko informazio-fitxa ematen dizugu, Espainiako Bankuaren ekainaren 27ko 5/2012 Zirkularren eskakizunekin bat etorriz. Funtsezko Datuen Dokumentu (KID) honetan egin daitekeen edozein eguneratze eskuragarri egongo da Banco Sabadellen webgunean edo BS Onlinen bezeroaren posizio-kontuan.